

{ datorrena } **Iratxe Urizar**

Puntu beltzak

Aurretik beste artikulua batean jada aipatu nuen zinez uste dudala ez dela eraso sexista gehiagorik ematen, gehiago salatzen dela baizik. Izan ere, eraso guztien parte txiki- txiki bat baino ez dela ezagutzera ematen sinistuta nago. Gure inguruan gero eta gu- txiago tabu den gai honi buruz hitz egiten hastea baino ez dugu horretaz jabetzeko: ahizpak, lehengusinak, lagun- nak... den-denek konta dezakete lehen pertsonan antzeko esperientziaren bat: txikia izanda Bilboko Plaza Berrian kromoak aldatzera joan eta esku bat ipurdian sentitzea; edo autobusean berdina gertatzea; ipurdia ukitu baino gehiago egin zidan barraketako gizona; exhibizionista hura etxerako bidean; «ez-bai-gutxi-gorabehera-bueno- ez» onartutako harreman sexuala jaietan egon eta gero mozkortuta geundela, hain jatorra zen kuadrillako lagun horrekin... Inoiz ez genuen aipatu. Baina salaketek odol- jariora dirudite eta hor genituen esperientziak, guztion- gan zeudenak eta agian inoiz kontatu gabeak, ateratzen hasi gara.

Ez da bat-batean denak ados jarri garenik aurpegia eman eta erasoei aurre egite- ko. Denoi eragiten digun zer- bait dela jabetu garena baizik, eta denon artean ez bada ezi- nezkia izango dela hau guz- tia aldatzea. Denon artean, lotsarazteko modukoa izan den kuasi-permisibitate ho- rretatik errealtate gordina kaleratu behar dugu. Bat uki- tzen dutenean, denok uki- tzen gaituztelako. Bilboko Aste Nagusia ia egunero kale- ra atera garelako salaketa egitera eta egoera oraindik gordinagoa dela badakigulako. Txosnen, tabernen, kale kantoien artean isilik mantendu diren beste hainbat ka- su egon direla badakigulako. Aste Nagusia baloratzeko orduan, denon txalo beroa merezi duten Bilboko Kon- partsek eraso sexistak aipatu dituzte jaietako puntu beltz moduan, eta, erasoon aurrean emandako erantzun irmoa, puntu positibo gisa.

Maiz hitz egiten da puntu beltzez eraso sexistei buruz ari garenean: kale hau edo beste, eskailera arteko izkina hura... Baina puntu horiek asko zabal daitezke: Bilboko alde zaharra bere osotasunean behin dendak itxi dituz- tenean, esaterako. Alarmista? Ez, hori da dagoena. [Uda honetan hainbat hormatan irakurritakoa ezin hobea iru-

ditu zait: “Etxerako bidean ez zaitut ausart nahi, aske nahi zaitut. Ez dut eskua poltsan sartuta eraman nahi, giltzak ukabil amerikar gisa jarrita; ez dut tente eta azkar ibiltzerik nahi, ia korrika; ez dut haserre aurpegiarekin kaletik joan nahi”]. Hala ere, benetako puntu beltzak ez dira horren fisiko eta detektagarriak. Orain gutxi irakur- tzen genuen eraso sexisten %10 baino ez direla salatzen, eta horietatik %1 baino ez direla kondena batekin buka- tzen. [Ez dut kondenen alde agertu nahi. Baina kondena faltak biktima gezurti lez eta eskubide gabe uzten du]. Erasotzaileak, beraz, zigorgabe sentitzen dira, eta hori si- nisteko arrazoi guztia dute, gainera. Europar Batasunean biolentzia sexistari buruz egindako azken barometroa- ren arabera, gizonen %18k bortxaketa “portaera ez-larri” moduan ulertzen zuen. Hori baino puntu beltzagarrik ezin dut imajinatu.

Izan ere, emakumezkoak baino gehiago direla sinisten duten gizonetakoak dauden bitartean, patriarkatuak gure

Benetako puntu beltzak ez dira horren fisiko eta detektagarriak. Orain gutxi irakurtzen genuen eraso sexisten %10 baino ez direla salatzen, eta horietatik %1 baino ez direla kondena batekin bukatzen

gizartea, bizitza, kultura, gobernatzen duen bitartean, be- ti joango gara atzetik, ondoren, erantzun dinamikan. Ibilbide luzeko lana dela gauzak aldatzea argi dago, eta ez dut topikoetan erori nahi heziketaren faktorea ere aipa- tuz. Erasoei erantzuteko modu asko daude eta denak nahi ditut. Gure txikiak berdintasunean hezi behar ditu- gu, bai, gauzak errotik aldatzen joan pixkanaka. Baina pauso erraldoiak eman dira salaketa publikoan eta kon- tzentziazioan: egunkari bateko iritzi artikulua, interpe- lazioa, Gasteiz eta Iruñea bezalako erantzun kontzentra- zio jendetsuak, Aste Nagusia gelditu erasoak salatze- ko, jantzi beltzak nagusi diren lastargiz jositako manifesta- zio zaratzatuak.... Hezi, saretu, autodefentsa feminista, isiltasunetik atera, tabuak apurtu (horiek nazkagarri, lo- tsakor edo mingarriak izanda ere). Hortzak erakutsi. •